*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

Murgian, bi mila eta hogeiko azaroaren hamabian, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu.

**ALKATEA**
UNAI GUTIERREZ URKIZA JN. (EH Bildu)

**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZUIA BAI)
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (ZUIA BAI)
CONCHI LOPEZ LOPEZ AND. (ZUIA BAI)
ANDRES LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ JN. (PP) (19:15ean heldu da)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

En Murgia a doce de noviembre de dos mil veinte, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de las personas miembros de la Corporación que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)

**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZUIA BAI)
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (ZUIA BAI)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA BAI)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA (ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP) (llega a las 19:15 horas)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

## 1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aurreko bilkurako akta ikusita, honako eragozpen hauek jarri dira:

4. aztergaian (2021eko zergen eta prezio publikoen ordenantzak onartzea), alkateak aipatu zuenean Zaborren tasan ostalaritza sektoreari dagozkionak murrizteko proposamena, osasun eta ekonomia krisiak gehien zigortu duen sektoretzat jotzen baitu, Alonso zinegotzi jaunak honako hau esan zuen: *orduan kontzejuetako gizarte zentroei aplikatuko zaiela, eta alkateak ezetz erantzun dio, haietan jarduera ekonomikorik ez dagoelako.*

Sautu zinegotzi jaunak esan du 8.- Gaderak eta Eskaerak izeneko aztergaian, autobus markesinetako pintadak garbitzeko eskatzeaz gain, *eranskailuak* ere gehitu zituela.

Udalbatzakaurreko akta onartzea erabaki du, aho batez, azaldutako zuzenketak gehituta.

## 1. APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR

Vista el acta de la sesión anterior se realizan las siguientes objeciones:

El Concejal Sr. Alonso, en el punto 4.- Aprobación Ordenanzas fiscales y de precios públicos 2021, cuando el Alcalde comentó en la Tasa de Basuras la propuesta de reducir las correspondientes al sector de la hostelería al considerarlo el más castigado por la crisis sanitaria y económica, dijo que *entonces se aplicará a los Centros Sociales de los Concejos, contestándole el Alcalde que no porque no hay actividad económica en ellos.*

El Concejal Sr. Sautu dice que en el punto 8.- Ruegos y Preguntas, además de rogar la limpieza de las pintadas de las marquesinas de los autobuses, también añadió *y las pegatinas.*

La Corporación por unanimidad acuerda aprobar el acta con las correcciones expuestas.

## 2. ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak 2020.10.08ko 225. zk.ko dekretutik 2020.11.05eko 251.era arte eman dituen xedapenen berri eman, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Ordainketa aginduei dagokienez, Lopez zinegotziak uste du garesti samarra izan dela Ruper Ordorika abeslaria kontratatzea eta, gainera, esan ziotenez, gaizki entzuten zela, eta Elorza zinegotziak zehaztu du prezioan soinu ekipoa sartzen dela, hau da, 1.500 euro.

## 2. DECRETOS DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el decreto nº 225 de fecha 08.10.2020 al nº 251 del 05.11.2020, dándose la Corporación por enterada.

Respecto a las órdenes de pago, la Concejala Sra. López opina que ha resultado un poco cara la contratación del cantante Ruper Ordorika y además según le comentaron se oía mal, puntualizando la Concejala Sra. Elorza que en el precio se incluye el equipo de sonido que asciende a 1.500€

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

**3. POSTA OFIZIALA.**

Udaleko erregistroan sartu den gutuneria ikusita (Udalbatzako kideei astero ematen zaie gutuneriaren berri), eta batzordeari kontsultatutako idazkien berri emanda, Udalbatza horren jakitun geratu da.

**3. CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

Vista la correspondencia que ha tenido entrada en el registro del Ayuntamiento, de la cual se informa semanalmente a los miembros de la Corporación, y una vez que se informó en la comisión de los escritos consultados, la Corporación se da por enterada de la misma.

**4. AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Elorza zinegotzi andreak azken bi Informazio Batzordeetan azaldutakoa errepikatuz, Kuadrillako berdintasun teknikariak egindako adierazpena aurkeztu du alkateak, onartzeko. Adierazpen hori eremu horretako talde feministekin adostu da.

Udalbatzak aho batez ERABAKI DU proposamena onartzea. Hona hemen testua:

AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den jendartea eraikitzearekin Zuiako Udalak duen konpromisoa berretsi nahi dugu.

**4. DECLARACION INSTITUCIONAL 25 NOVIEMBRE**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en las dos últimas comisiones informativas por la Concejala Sra. Elorza, presenta para su aprobación la declaración elaborada por la Técnica de Igualdad de la Cuadrilla, que ha sido consensuada con los grupos feministas de dicho ámbito.

La Corporación por unanimidad ACUERDA aprobar la misma, cuyo texto se recoge a continuación:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL 25 DE NOVIEMBRE: DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES

*Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la erradicación de la violencia contra las mujeres, queremos reafirmar el compromiso del Ayuntamiento de Zuia con la construcción de una sociedad libre de violencia machista.*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat eginez, berriz azpimarratu behar dugu badagoela loturarik genero-arrazioengatiko bazerkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria giza-eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

*Asimismo, en consonancia con el marco jurídico internacional, debemos insistir en la existencia de una relación entre la discriminación y la desigualdad por razones de género y la violencia contra las mujeres, entendida esta última como una violación de los derechos humanos.*

Azken urteotan, aldaketa nabariak gertatu dira emakumeen eta gizonen arteko harremantetan. Hala ere, aurreapenak aurrerapen, sarritan ikusten dugu harreman horiek gure jendartean errotutako desberdintasunean eraikitzen jarraitzen dutela, eta desberdintasun hori erreproduzitzen eta iraunarazten duten eguneroko jarreretan agertzen dela. Harreman horiek emakumeenganako zapalkuntzan eta botere-harremanetan oinarritzen dira oraindik ere.

*En los últimos años se han producido importantes cambios en las relaciones que se establecen entre mujeres y hombres. Sin embargo, y a pesar de los avances, a menudo vemos cómo estas relaciones se siguen construyendo sobre una desigualdad enraizada en nuestra sociedad, que se manifiesta en actitudes cotidianas que la reproducen y perpetúan. Estas relaciones se siguen basando en la opresión hacia las mujeres y relaciones de poder.*

Emakume eta gizonen arteko desberdintasun testuinguru horretan kokatu behar ditugu eraso matxistak; horietako batzuk hain normalizatuak eta errotuak daudenak, antzematea ere zaila bihurtzen dela.

*Es en este contexto de desigualdad donde debemos enmarcar las agresiones machistas, algunas de ellas tan normalizadas y cotidianas que no son fáciles de detectar.*

Gaur egungo egoeran, ezin da ukatu Covid-19 pandemiak eragin duen egoera sozio-ekonomikoa eta politiko larria. Pandemia egoerak, berriz ere, ez dio berdin eragiten mundo guztiari, emakumeak eta neskak krisi honek utzitako efedtu negatiboen aurrean arrisku gehiago dituzte.

En la situación actual, no se puede negar la grave situación socio-económica y política que ha provocado la pandemia de la Covid-19. Y esta situación, una vez más, situación no afecta por igual a todo el mundo, las mujeres y las niñas tienen más riesgos ante los efectos negativos provocados por esta crisis.

Zergatik? Zaurgarritasun egoeran zeuden pertsonak (lan prekarioetan, etxebizitzarik gabeko pertsonak, aniztasun funtzional edo gaixotasun dronikoak dituzten pertsonak, adinekoak, migratuak… etb.) zurgarriagoak bihurtu dituelako. Hau horrela, genero ezberdintasunak azaltzen du talde hauen barruan

¿Por qué? Porque ha hecho más vulnerables a las personas en situación de vulnerabilidad (en trabajos precarios, personas sin vivienda, personas con diversidad funcional o con enfermedades crónicas, personas mayores, migradas, etc.). Así, la

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

desigualdad de género explica que dentro de estos grupos, mujeres y chicas emakumeak eta neskak drisi honen aurrean arrisku gehiago dituztela, diskriminazioari, indarkeriari eta eskubideen urraketari dagokionez.

espezializatuetan zerbitzuen jarduera esanguratsua izan da: 5.963 esku-hartze tienen más riesgos ante esta crisis, en términos de discriminación, vilencia y vulneración de derechos.

Bestalde, ezinbestekoa da aipatzea jendartea zaintzeaz arduratu direnen gehiengoa emakumeak izan direla egoera honetan ere; esparru sozio-sanitarioetako eta beste sektore ekonomiko giltzarri batzuetako langileetan duten pisuagatik, baina baita emakume horiek eta beste askok etxeetan egin dituzten doako zaintza-lanengatik ere.

Por otro lado, es necesario señalar que la mayoría de las personas encargadas del cuidado de la sociedad han sido mujeres también en esta situación; por su peso en el personal de los ámbitos socio-sanitarios y de otros sectores económicos clave, pero tambióen por las labores de cuidado gratuito que han realizado estas y otras muchas mujeres en los hogares.

Testuinguru honetan, osasun-larrialdia dekretua zenetik eta, horrekin batera, konfinatzeko betebeharra ezarri zenean emakume eta haur asko haien erasotzaileekin denbora gehiago egotera behartu zitzaien, dakigunean erasotzaileekin bizi diren emakume eta haur askorentzat etxea dela egoteko lekurik arriskutsuena.

En este contexto, desde que se decretó la emergencia sanitaria y, con ello, la obligación de confinamiento, muchas mujeres, niñas y niños se les obligó a estar más tiempo con sus agresores, cuando sabemos que el hogar es el lugar más peligroso para estar para muchas mujeres y criaturas que conviven con los agresores.

Egoera honen aurrean Emakumeen aurkako Indarkeriaren Biktimentzako Telefono bidezko Arreta-Zerbitzuaren (SATEVI) esku-hartzeak %10,5a egin zuten gora itxialdi garaian[1].

Ante esta situación la intervención del Servicio de Atención Telefónica a Víctimas de Violencia contra las Mujeres (SATEVI) aumentó un 10,5 % durante el periodo de confinamiento.

Nahiz eta arazo social honen tamaina erreala cifra ofizialetan ez islatu, drisiaren aurretik **EAEko emakume askok indarkeria jasateko arriskua zeukatela bagenekien. 2019an, 3.098 emakume erasotu zituen bikotekideak edo bikotekide ohiak EAEn eta beste 899 bere familia-inguruneko beste gizonezkoren batek.** Hamar erasotatik bederatzi familia-esparruan gertatu ziren.

Aunque la magnitud real de este problema social no se refleje en cifras oficiales, antes de la crisis sabíamos que muchas mujeres vascas tenían riesgo de sufrir violencia. **En 2019, 3.098 mujeres fueron agredidas por su pareja o ex pareja en la CAPV y 899 por al´gun otro hombre de su entorno familiar.** Nueve de cada diez agresiones se produjeron en el ámbito familiar.

Halaber, Foru Aldundiek eskaintzen duten arreta psikologiko

Asimismo, en las atenciones psicológicas especializadas que ofrecen

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

las Diputaciones Forales la actividad de los servicios ha sido significativa, con egin dituzte: 1.533 kasu aktibori erantzun die, eta 332 kasu berriren esku-hartzea hasi dute itxialdia eta gero[2].

Ahaztu gabe Euskal Herrian 2003tik urtetik hona **106 emakume eta 11 haur erail** dituztela. Euskal Herrian 4 emakume erailak izan dira 2020an[2].

Egoera honen aurrean, Zuiako udalak ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. Prebentzio, sentsibilizazio eta arreta zerbitzuen funtzionamendu egokia eta indarkeriaa matxistaren aurreko erantzuna mantentzea eta lehenestea, zerbitzu hauek funtsezko zerbitzuak direla bermatuz.

2. Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeeri bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarriz.

3. Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol- mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.

4. Ekimen kolektiboei laguntza eman (laguntza-taldeak, plataformak eta mugimendu feministak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.

*5.* Biktimen salaketa-eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako

5.963 intervenciones, que han dado respuesta a 1.533 casos activos y han inicado la intervención de 332 nuevos tras el periodo de confinamiento.

Sin olvidar que en el País Vasco desde 2003 han sido asesinadas **106 mujeres y 11 niñas y niños**. En Euskal Herria han sido asesinadas **4 mujeres en 2020**.

Ante esta situación, el ayuntamiento de Zuia se compromete a:

1. Mantener y priorizar el buen funcionamiento y la respuesta ante la violencia machista de los servicios de prevención, sensibilización y atención, garantzando que estos servicios son servicios esenciales.

2. Escuchar a las mujeres supervivientes para diseñar medidas de prevención y seguridad, poniendo en valor estrategias de prevención que sirvan para sobrevivir y proteger a las mujeres.

3. Estar al lado de las mujeres, desde los servicios asistenciales hasta crear su propio relato sobre la violencia vivida, entendida como un mecanismo de dominación y control construido en el sistema social patriarcal.

4. Apoyar iniciativas colectivas (grupos de apoyo, plataformas y movimientos feministas) para que las mujeres supervivientes elaboren un relato colectivo sobre esta violencia y reivindiquen los derechos vulnerados y la reparación.

5. Colaborar en los procesos de denuncia y reclamación de las víctimas para la comporbación de los testimonios

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

testigantza eta beharrak egiaztatzeko.

6. Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitorpen publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.

7. Elkarlanean jardín mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxitatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.

Murgian, 2020ko azaroaren 9an

por las mujeres.

6. Realizar periódicamente actos de reconocimiento público y reparación a las víctimas de la violencia machista, tanto individuales como colectivos: estudios para la recuperación de la memoria de resistencia de las mujeres; actos de homenaje; jornadas para la comunicación de la memoria y los relatos de las mujeres; talleres de sensibilización con la juventud, etc.

7. colaborar con representantes del movimiento feminista, personas expertas y colectivos y asociaciones de mujeres víctimas supervivientes de la violencia machista.

En Murgia, a 9 de noviembre de 2020

Aztergai hori amaituta, Luis Mª Sautu zinegotzia bilkuran sartu da, 19:15ean.

**5. ZUIAKO EALZ KUDEATZEKO AKORDIO PROPOSAMENA.**

Finalizado este punto se incorpora a la sesión el Concejal Luis Mª Sautu, siendo las 19:15 horas.

**5. PROPUESTA DE ACUERDO PARA LA GESTION DEL CRAD DE ZUIA.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

Alkateak Informazio Batzordean Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzuari buruz azaldutakoa errepikatu eta bere proposamena azaldu du. Udalaren eskumen esklusiboko zerbitzua da, 2016ko gizarte zerbitzuen mapan jasota dagoen bezala, eta orain arte modu mistoan kudeatu da, behin-behinean, Udalaren (bere gain hartzen du kanpoko enpresaren kontratazioa) eta Aldundiaren (erabiltzaileen balorazioa egiten du, tasak kobratzen ditu eta gero diru-laguntza ematen dio Udalari) artean, baina ez dago argi 2021etik aurrera jarraitu beharreko eredua, eta, zehazkiago, Udalak kudeaketa bere gain hartuz gero, Aldundiak kudeaketa eskuordetuak dakarren kostuaren antzeko diru-laguntza emango liokeen. Hau da, Udalak berak kudeatuz gero Aldundiak egingo lukeen ekarpen ekonomikoa jakin nahiko lukete.

El Alcalde reitera lo expuesto en la comisión informativa respecto al servicio del Centro Rural de Atención Diurna y explica su propuesta; se trata de un servicio de exclusiva competencia municipal tal y como consta en el mapa de servicios sociales de 2016, que hasta ahora se ha gestionado provisionalmente de forma mixta Ayuntamiento (asume la contratación de la empresa externa) y Diputación (hace la valoración de las personas usuarias, cobra las tasas y luego da una subvención al Ayuntamiento), pero no está claro el modelo a seguir a partir del próximo año 2021 y más concretamente si en el supuesto de que el Ayuntamiento asuma la gestión del mismo, Diputación le concedería una subvención similar al coste que supone la gestión delegada. Es decir, quisieran conocer la aportación económica que realizaría Diputación en caso de gestión propia por el Ayuntamiento.

Zuia Bai taldea: Ircio zinegotzi andreak esan du EUDEL eta Aldundia 2021.01.01etik aurrera aplikatuko litzatekeen 4 urterako hitzarmena lantzen ari direla eta EAJ/PNVk ekarpenak egin dituela eta EH-BILDUk ez duela alegaziorik aurkeztu.

Grupo Zuia Bai: la Concejala Sra. Ircio dice que desde EUDEL y Diputación están trabajando en un convenio a 4 años que se aplicaría a partir del 01.01.2021 y EAJ/PNV ha hecho aportaciones y EH-BILDU no ha presentado alegación alguna.

PP taldea: Sautu zinegotzi jaunak planteatu du ea posible den proposamenaren 1. puntuaren idazketa aldatzea, Udalak bere eskumenaren egikaritza bere gain hartu nahi duela adierazteko, eta Alkatetzak erantzun du ez dagoela arazorik.

Grupo PP: el Concejal Sr. Sautu plantea si es posible modificar la redacción del punto 1 de la propuesta, en el sentido de mostrar el Ayuntamiento su voluntad de asumir el ejercicio de su competencia, contestando la Alcaldía que no hay problema alguno.

Udalbatzak, gehiengo osoz, hau da, EH-Bildu (6) eta PPko (1) zinegotzien aldeko botoarekin eta gainerakoen (4) aurkakoarekin, aurkeztutako proposamena onartzea ERABAKI DU:

La Corporación por mayoría absoluta, con el voto favorable de las Concejalas y Concejales de EH-Bildu (6) y PP (1) y el voto en contra del resto (4), ACUERDA aprobar la propuesta presentada:

1. Zuiako Udalaren osoko bilkurak adierazten du bere gain hartu nahi duela bere eskumena gauzatzea eta Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua ematea, indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, bai eta Arabako Foru Aldundiaren mendeko erabiltzaileak sartzeko Arabako Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako baliabide mistoaren izaerari eustea ere.

2. Zuiako Udalaren osoko bilkurak beharrezkotzat jotzen du erakundeen arteko lankidetza koordinatua eta iraunkorra Udalaren eta Aldundiaren artean, gure bizilagunentzako zerbitzu ezin hobea bermatzeko, bai eta bi erakundeek gizarte zerbitzuen kudeaketan dituzten interesak asetzeko ere.

3. Zuiako Udalaren osoko bilkurak Gizarte Ongizateko diputatu Emilio Solari premiazko bilera bat eskatu dio bi erakundeen artean, Zuiako Eguneko Arretarako Landa Zentroaren zerbitzua emateko erakundeen arteko lankidetza esparruaren xehetasunak adosteko, hala nola informazioa trukatzea, plazak gordetzea, zerbitzua finantzatzea, etab.

1. El pleno del Ayuntamiento de Zuia manifiesta su voluntad de asumir el ejercicio de su competencia y prestar el servicio del Centro Rural de Atención Diurna acorde con la legislación vigente, así como también mantener su carácter de recurso mixto recogido el Mapa de los Servicios Sociales de Araba para la inclusión de usuarios dependientes de la Diputación Foral de Araba.

2. El pleno del Ayuntamiento de Zuia considera necesaria una colaboración institucional coordinada y permanente entre el Ayuntamiento y la Diputación para garantizar un óptimo servicio para nuestros vecinos y vecinas, así como satisfacer también los intereses de ambas instituciones en la gestión de los servicios sociales.

3. El pleno del Ayuntamiento de Zuia solicita al Diputado de Bienestar Social, Emilio Sola, una reunión con carácter de urgencia entre ambas instituciones con el fin de acordar los detalles del marco de colaboración institucional en la prestación del servicio de Centro Rural de Atención Diurna de Zuia, tales como el intercambio de información, reserva de plazas, financiación del servicio, etc.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

4. Zuiako Udalaren osoko bilkurak ahalmena ematen dio alkateari Arabako Foru Aldundiarekin elkarrizketak eta negoziazioak berehala hasteko, bai eta zerbitzua erregulatzeko udal araudia eta dagokion ordenantza fiskala izapidetzeko ere.

5. Gizarte Ongizateko diputatu Emilio Solari eta Arabako Batzar Nagusiei erabaki horren berri emango zaie.

4. El pleno del Ayuntamiento de Zuia faculta al alcalde para iniciar de manera inminente las conversaciones y negociaciones pertinentes con la Diputación Foral de Araba así como la tramitación de la normativa municipal de regulación del servicio y su ordenanza fiscal correspondiente.
5. Se dará cuenta de este acuerdo al Diputado de Bienestar Social, Emilio Sola y a las Juntas Generales de Álava.

**6. KREDITUA TRANSFERITZEKO ESPEDIENTEA.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, murriztu daitezkeen partiden kreditu transferentzien bidezko aurrekontu aldaketa bat onartzea proposatu du, aurreikusitako gasturako nahikotzat jotzen ez diren partida jakin batzuk osatzeko, hala nola: hirigintzako aholkularitza, deposituetako ponpak eta hondakin uren araztegia energiaz hornitzea, Konfederazioak erreklamatutako hondakin uren araztegira isurtzeko azken 3 urteetako kanona, OAMIPen garbiketa indartzea eta Kuadrillako gastuetarako ekarpena.

Idazkari-kontuhartzailearen txostena ikusirik.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA: **3/2020 zenbakidun Kreditu transferentziako espedientea** onartzea, 40.594,73 eurokoa, xehetasun honen arabera:

**6. EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIA DE CREDITO.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la Comisión informativa propone aprobar una modificación presupuestaria mediante transferencias de crédito de partidas susceptibles de minorar, para suplementar determinadas partidas cuya consignación se considera insuficiente para el gasto previsto: asesoramiento urbanístico, suministro de energía bombas depósitos y EDAR, canon vertido EDAR reclamado por la Confederación de los 3 últimos años, refuerzo de limpieza en el CPVO y aportación a los gastos de la Cuadrilla.

Visto el informe de la Secretaria-Interventora.

La Corporación por unanimidad ACUERDA

PRIMERO: Aprobar el **Expediente de Transferencia de crédito número 3/2020** por importe de 40.594,73 euros conforme al siguiente detalle:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

**Murriztu beharreko gastuen egoera-orriko partidak**

| Partida | Izena | Hasierako kred. | Zenbateko deuseztagarria |
|---|---|---|---|
| 163.210.000 | Murgiako jaietako garbiketa | 4.000,00 | 4.000,00 |
| 231.480.090 | Mendekoen arretarako langileen diru-laguntza | 16.000,00 | 11.800,00 |
| 338.434.000 | Kontzejuetako jaietarako diru-laguntza | 27.000,00 | 24.794,73 |

**Kreditu deuseztapenak guztira ….………40.594,73**

**Partidas del estado de Gastos a minorar**

| Partida | Denominación | Créd. inicial | Importe anulable |
|---|---|---|---|
| 163.210.000 | Limpieza fiestas Murgia | 4.000,00 | 4.000,00 |
| 231.480.090 | Subvención personal atención dependientes, | 16.000,00 | 11.800,00 |
| 338.434.000 | Subvención fiestas Concejos | 27.000,00 | 24.794,73 |

**Total bajas de crédito ….………40.594,73**

**Gehitu beharreko gastuen egoera-orriko partidak**

| Partida | Izena | Hasierako kred. | Gehikuntza |
|---|---|---|---|
| 150.421.010 | Kuadrillarentzako hirigintza arloko aholkularitza | 64.981,04 | 5.400,00 |
| 161.221.010 | Gilierna eta Markinako ponpen argindarra | 9.000,00 | 1.500,00 |
| 166.221.010 | Araztegiko argindarra | 9.000,00 | 13.600,00 |
| 166.226.010 | Araztegiaren kanona | 3.000,00 | 9.358,63 |
| 323.227.010 | Oroko Andre Mariaren Ikastetxeko garbiketa | 57.700,00 | 4.000,00 |
| 942.421.010 | Gorbeialdeko Kuadrilla | 15.150,00 | 5.800,00 |
| 942.421.030 | Kuadrillako berdintasun teknikaria | 2.698,29 | 936,10 |

**Kreditu gehikuntzak guztira ………...40.594,73**

**Partidas del estado de gastos a incrementar**

| Partida | Denominación | Créd. inicial | Incremento |
|---|---|---|---|
| 150.421.010 | Asesoramiento urbanístico Cuadrilla | 64.981,04 | 5.400,00 |
| 161.221.010 | Energía eléctrica bombas Gillerna y Markina | 9.000,00 | 1.500,00 |
| 166.221.010 | Energía eléctrica depuradora | 9.000,00 | 13.600,00 |
| 166.226.010 | Canon depuradora | 3.000,00 | 9.358,63 |
| 323.227.010 | Limpieza Colegio Virgen de Oro | 57.700,00 | 4.000,00 |
| 942.421.010 | Cuadrilla Gorbeialdea | 15.150,00 | 5.800,00 |
| 942.421.030 | Técnica igualdad Cuadrilla | 2.698,29 | 936,10 |

**Total aumentos de crédito ………...40.594,73**

BIGARRENA: Arabako Foru Aldundiari espedientaren kopia bidaltzea.

SEGUNDO: Remitir copia del expediente a la Diputación Foral de Alava.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

**7. TXOSTENAK.**

Alkateak ondorengo gaien berri eman du:

- Palatu kiroldegia eraberritu eta handitzeko obren proiektua idatzi, gauzatu eta segurtasuna eta osasuna koordinatzeko zerbitzuak kontratatzeko lizitazioa egin da.

- Eusko Jaurlaritzak hartutako neurri berriak ikusita, ostiralean bertan behera geratu zen 16 urtetik beherakoentzako kirol jarduera, eta aldundiek jarduera hori argituta, 6 eta 16 urte bitarteko jarduerak debekatuta jarraitzen du, baina astelehenetik aurrera 4 eta 5 urtekoentzako psikomotrizitatea hasiko da. Sautu zinegotzi jaunak esan du badakiela aldundiak horren aurka daudela, eta Eusko Jaurlaritzaren akatsa dela uste dutela; ingurunea kontrolpean dago.

- Ludoteka zerbitzua dela-eta, berdin jarraitzen du, eta neurri berriek ez dute eraginik izan.

Elorza zinegotzi andreari hitza eman eta honakoa jakinarazi du:

- EJren urriko Dekretuak eragina du kultur arloan, eta, zehazki, emanaldietan baimendutako edukieran, hain zuzen re, larunbateko antzinako musikako kontzertuan (plazak beteta daude) eta bihar proiektatuko den dokumentalean.

**7. INFORMES.**

El Alcalde informa los siguientes temas:

- Se ha licitado la contratación de los servicios de redacción del proyecto, dirección y dirección de la ejecución y coordinación de la seguridad y salud de las obras de reforma y ampliación del polideportivo de Palatu.

- A la vista de las nuevas medidas adoptadas por el Gobierno Vasco, el viernes ya se suspendió la actividad deportiva para las personas menores de 16 años y con la aclaración de la misma por parte de las Diputaciones, sigue prohibida la actividad entre 6 y 16 años, pero a partir del lunes comienza la psicomotricidad para 4 y 5 años; el Concejal Sr. Sautu dice que le consta que las Diputaciones están en contra de esto, piensan que es un error del G.V.; el entorno está controlado.

- Respecto al servicio de ludoteca sigue igual, no habiéndose visto afectado con las nuevas medidas.

Concedida la palabra a la Concejala Sra. Elorza, informa:

- Que el Decreto del G.V. de octubre afecta al área cultural y concretamente al aforo permitido en las actuaciones, y concretamente al concierto de música antigua del sábado, para el que ya están cubiertas las plazas y al documental que se proyectará mañana.

**8. INTERPELAZIOAK, IZAPIDE GAIAK ETA PRESAZKOAK.**

Udalbatzak, aho batez eta premiazkotzat jo ondoren, aurreikusi gabeko bi aztergai hauek gai-zerrendan sartzea erabaki du:

**8. INTERPELACIONES, ASUNTOS DE TRÁMITE Y URGENTES.**

La Corporación por unanimidad y previa declaración de urgencia, acuerda incluir estos dos puntos no previstos en el orden del día:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

**8.1. PP taldearen mozioa, Zuiako mendietan perretxikoen bilketa kontrolatu eta arautuko duen araudia sortzeari buruzkoa.**

Alkateak Sautu zinegotzi jaunari hitza eman, eta hark aurkeztutako mozioa azaldu du. Batzordean azaldutakoa errepikatu, eta mozioaren justifikazioa azaldu du, bertan jasotzen denaren arabera, honako hau izanik:

*Urteak daramatzagu ikusten gure udalerrian perretxikoak biltzeko ohitura gora egiten ari dela, eta, horren ondorioz, garai honetan, gure mendiak horretan ari den jendez gainezka daude.*

*Gure mendiek urte sasoi jakin batzuetan jasaten dutenak, egungo kudeaketa ez bezalako bat eskatzen bide du, tokiko antzinako ohituretan oinarritutakoa, alegia.*

*Jakin behar dugu basoa ekosistema konplexua dela, eta perretxikoak hartzeak honda dezakeela, lurzorua edo landare lurrustela eskuareekin edo beste tresna batzuekin ez urratzeko neurriak hartzen ez badituzte.*

*Perretxikoak izaki bizidunak dira eta guztiek dute beren funtzioa naturan, baita toxikoenek edo pozoitsuenek ere. Horregatik, ez dira suntsitu edo zapaldu behar.*

*Perretxiko osasuntsuak eta helduak bakarrik bildu beharko lirateke. Ale zahar edo ustelek, etxera iristean segur aski botako ditugunak, basoan esporatu eta perretxiko berriak sortzen lagun dezakete, edo, gutxienez, beste izaki bizidun batzuen elikagai izan daitezke.*

*Xafla estuko aizto edo labana batekin moztu behar ditugu*

**8.1. Moción del Grupo PP sobre creación de normativa que controle y regule la recogida de setas en los montes de Zuia.**

El Alcalde concede la palabra al Concejal Sr. Sautu quien explica la moción presentada, y reiterando lo expuesto la comisión, expone que la justificación de la misma, según se recoge en ella es la siguiente:

*Llevamos años asistiendo a un enorme incremento en el hábito de recogida de setas en nuestro municipio, que hace que nuestros montes en esta época se vean desbordados de personas practicando esta actividad.*

*El sometimiento al que en ciertas épocas del año se ven sometidos nuestros montes, parece requerir una gestión diferente a la actual, basada, en las ancestrales costumbres locales.*

*Hemos de ser conscientes que el bosque es un ecosistema complejo y que nuestra actuación al coger setas, puede estropearlo si no toman precauciones como la de no rascar el suelo o el mantillo vegetal con rastrillos u otras herramientas.*

*Las setas son seres vivos y todas tienen su función en la naturaleza, incluso las más tóxicas o venenosas. Por eso, se debe evitar destruir o pisotearlas.*

*Se deberían recolectar sólo los ejemplares sanos y adultos. Los ejemplares viejos o podridos, que seguramente desecharemos al llegar a casa, pueden esporular en el bosque y contribuir al nacimiento de nuevas setas, o al menos servirán como alimento de otros seres vivos.*

*Hemos de cortar las setas por el pie con un cuchillo o navaja de hoja*

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

*perretxikoak oinetik, perretxikoaren lurpeko zatia den mikelioa ez suntsitzeko.*

*estrecha para no destruir el micelio, que es la parte subterránea de la seta.*

*Gure ustez, beharrezkoa da gogoratzea perretxikogilerik onena ez dela etxera saski bete gehiagorekin iristen dena, baizik eta basotik irten ondoren bertan egon izanaren arrasto edo aztarna ikusgarririk uzten ez duena.*

*Creemos que es necesario recordar que el mejor setero no es el que llega a casa con más cestas llenas, sino aquél que después de salir del bosque, no deja ningún resto o huella visible de su estancia.*

*Zoritxarrez, neurri horiek guztiak ez dituzte kontuan hartzen egunez egun gure basoak kaltetzen dituzten pertsona askok.*

*Perretxikoak gure mendien aberastasunetako bat dira, eta hórrela tratatu egin behar ditugu; lehenik eta behin, konpondu ezinezko kalte ekologikorik ez eragiteko, eta, bigarrenik, haranarentzat aberastasuna sor dezakeen produktu gisa.*

*Galizia, Gaztela Leon, Nafarroa eta Arabako herri askotan (Albeniz, Asparrena, Araia, Anda, Apota-Ubarrundia eta Kuartango, besteak beste) perretxiko bilketa kontrolatzeko eta kudeatzeko araudiak sortu dituzte. Ehiza barrutiak dauden bezala, perretxiko barrutiak sortu dira.*

*Por desgracia, todas estas precauciones no son tenidas en cuenta por un gran número de personas que día a día dañan nuestros bosques.*

*Las setas son una riqueza de nuestros montes y como tal la debemos tratar, en primer lugar para no producir daños ecológicos irreparables y en segundo lugar como un producto que puede generar riqueza para el valle.*

*Tenemos numerosos ejemplos de pueblos de Galicia, Castilla León, Navarra y en numerosos municipios de Alava (Albeniz, Asparrena, Araia, Anda, Apota-Ubarrundia y Kuartango) entre otros, que han creado normativas para el control y gestión en la recogida de setas. Lo mismo que existen cotos de caza, se han creado cotos de setas.*

***Zuiako Udalarentzat garrantzitsua iruditzen zaigu gure mendien erabilera kontrolatu eta kudeatuko duen araudia izatea.***

***Consideramos importante para el Ayuntamiento de Zuia poder contar con una normativa que controle y gestione la utilización de nuestros montes.***

ZUIA BAI taldea: Alonso zinegotzi jaunak adierazi du ados dagoela proposamenarekin, eta Sarriako Kontzejuko presidente gisa ere proposamen bat aurkeztu duela duela egun batzuk, kontuan hartuta, gainera, azken denboraldian udalerrian izandako zirkulazio kaosa eta aparkalekuen kaosa, horretan aritzen diren pertsonen joan-etorria dela eta.

Grupo ZUIA BAI: el Concejal Sr. Alonso manifiesta su acuerdo con la propuesta, y como presidente del Concejo de Sarría también ha presentado una propuesta hace unos días, teniendo en cuenta además el caos circulatorio y de aparcamientos generado esta última temporada la localidad con motivo de la afluencia de personal dedicado a dicha actividad.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus ● *Web:* www.zuia.eus

EH-BILDU taldea: Otsoa Eribeko zinegotziak azaldu du denak ados daudela azaldutakoarekin, eta, hasiera batean, Zigoitiko Udalarekin eta Aldundiko eta Gorbeiako parkeko ordezkariekin bilera bat egitea aurreikusi dutela, zerbait aurreratzeko; gure basoetan zer dugun azter daiteke, baina esku hartu ere, esku hartu behar da. Sautu jaunak Araiako kasua aipatu du; izan ere, lehen urtea guztiz defizitarioa izan zen, 3 hilabetez 2 pertsona egon baitziren eremua kontrolatzen, baina 2. urtean gastuak ordaindu zituzten; Aldundiari aipatu beharko litzaioke basozainek, eta baita miñoiek ere, ingurua kontrola zezaten.

Grupo EH-BILDU: el Concejal Sr. Otsoa Eribeko expone que todos están de acuerdo con lo expuesto y en principio han previsto mantener una reunión con el Ayuntamiento de Zigoitia y con representantes de Diputación y del Parque del Gorbeia para ir avanzando algo; se puede estudiar lo que tenemos en nuestros bosques, pero también hay que intervenir. El Sr. Sautu comenta el caso de Araia, donde el primer año fue totalmente deficitario al tener 2 personas durante 3 meses destinadas al control de la zona, pero el 2º año ya cubrieron gastos; habría que comentar a Diputación para que los guardas de montes, incluso los miñones controlaran la zona.

Udalbatzak mozioa aho batez berretsi eta honako hau ERABAKI DU:

La Corporación por unanimidad ratifica la moción presentada y ACUERDA:

LEHENENGOA: *Zuiako Udalak udalerriko mendietan perretxiko bilketa kudeatzeko eta kontrolatzeko araudia sortuko du.*

PRIMERO: *El Ayuntamiento de Zuia creará una normativa para la gestión y control de la recogida de setas en los montes de Zuia*

BIGARRENA: *Zuiako Udala bailarako administrazio batzarrekin harremanetan jarriko da Zuian perretxiko barruti baten sorrera bultzatu eta koordinatzeko.*

SEGUNDO: *El Ayuntamiento de Zuia se pondrá en contacto con las juntas administrativas del valle de Zuia para impulsar y coordinar la creación de un coto de setas en Zuia.*

**8.2. AITEKOMANAGEMENT SL enpresak 2016an Palatu kirol instalazioak kudeatu, kirol ikastaroak eman eta enplegua sustatzeko kontratuaren berme gisa jarritako abala itzultzeko eskaera.**

**8.2. Solicitud de devolución del aval depositado como garantía del contrato de la gestión de las instalaciones deportivas de Palatu, impartición de cursos deportivos y fomento del empleo en 2016 por AITEKOMANAGEMENT S.L.**

Alkateak proposatu du, Palatuko (igerilekuak barne) eta Jai-Alai pilotalekuko udal kirol instalazioetako sarbideak kudeatu, mantendu eta kontrolatzeko, kirol jardueren ikastaroak emateko eta 2016an esleitutako udalerrian enplegua

El Alcalde propone cancelar la fianza depositada por AITEKOMANAGEMENT S.L. como garantía del contrato de servicios de gestión, mantenimiento y control de accesos de las instalaciones deportivas municipales de Palatu (incluidas

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus

sustatzeko zerbitzuen kontratuaren berme gisa AITEKOMANAGEMENT SL enpresak jarritako fidantza bertan behera uztea, behin hori beteta, kontratuan aurreikusitako berme epea igaro eta kontratu berria esleitu ondoren.

IKUSIRIK dagokigun abala itzultzeko AITEKOMANAGEMENT enpresak aurkeztutako eskaera.

IKUSIRIK idazkariaren 2020.11.09ko txostena.

KONTUAN HARTUTA Kontratua arautzen duten klausula administratiboen agiriko 11. klausulan eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 95. eta 102. artikuluetan xedatutakoa, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2018 Legearen lehenengo xedapen iragankorrean behin betiko bermeari eta hura itzultzeari buruz xedatutakoarekin bat etorriz.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENENGOA: 2016. urtean esleitu zitzaion kontratuaren berme gisa AITEKOMANAGEMENT SL enpresak jarritako 8.030,00 euroko fidantza bertan behera uztea, kontratu hori Palatuko eta Jai Alai pilotalekuko kirol instalazioen mantentze lanetarako, kudeaketarako eta sarrera-kontrolerako, kirol-ikastaroak emateko eta enplegua sustatzeko izanik.

BIGARRENA: Interesatuari erabaki honen berri ematea.

piscinas) y Frontón Jai-Alai, la impartición de cursos de actividades deportivas y el fomento del empleo en el municipio adjudicado en el año 2016, una vez cumplido el mismo, transcurrido el plazo de garantía previsto en el contrato y adjudicado el nuevo contrato.

VISTA la solicitud presentada por AITEKOMANAGEMENT para la devolución del aval que nos ocupa.

VISTO el informe de la Secretaria de fecha 09.11.2020.

CONSIDERANDO lo dispuesto en la cláusula 11 del pliego de cláusulas administrativas reguladoras del contrato y artículos 95 y 102 del R.D. Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre pro el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, conforme a lo dispuesto en la Disposición transitoria primera de la ley 9/2018 de Contratos del Sector público, sobre la garantía definitiva y su devolución.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO: Cancelar la fianza depositada por AITEKOMANAGEMENT S.L. como garantía del contrato adjudicado a la misma en el año 2016 para el mantenimiento, gestión y control de acceso de las instalaciones deportivas de Palatu y frontón Jai Alai, impartición de cursos deportivos y fomento del empleo, mediante aval de Kutxabank S.A., por importe de 8.030,00 euros y proceder a su devolución.

SEGUNDO: Notificar esta resolución a la interesada.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

**9. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Sautu zinegotzi jaunak eskatu du HUAra bideratutako energia elektrikoa hornituko duten eguzki panelak jartzeko aukera azter dadila, gaur egun dagoen kostua murrizteko, kostu hori handia baita. Alkateak jakinarazi du Bea-Murgia Plazako autobusaren pergolan eguzki panel fotovoltaikoak instalatzeko hasieran aurreikusitako proiektua eta *azterlana aurten egin direla, eta jarduketa datorren 2021ean egingo dela*, eta, aukera posibleen artean, instalazio horrekin energia sortu eta sarera konektatzea posible den ikusi beharko dela, HUAren kontsumorako, edo, agian, hari erantsitako zelai batean egin beharko dela instalazioa.

Jarraian, ikastetxe berriari buruz ezer badakien galdetu du, eta alkateak ezetz erantzun dio.

Domingo de Sautu kalean, Palatu kalearen ondoan, dagoen finkan egindako zurezko hesiari buruz galdetu du Ircio zinegotzi andreak. Deigarria da, eta arraroa egiten zaio ez geldiaraztea; alkateak jakinarazi du arkitekto teknikoa aztertzen ari dela, horren inguruko txostena egiteko.

Lopez zinegotzi andreak igerilekuetan gertatutakoari buruz galdetu du, eta alkateak jakinarazi du gazte batzuek terrazako hesiak kendu zituztela eta aulkiak, hautsontziak eta botilak bota zituztela igerilekura taberna ireki zen azken egunean.

Ondoren, Lopez andreak Larrabizkalgo edukiontzien eremua garbitzeko eskatu du, eta edukiontzien kokalekua atzealdera aldatzeko aukera

**9. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Concejal Sr. Sautu solicita que se estudie la posibilidad de instalar panelees solares que suministren energía eléctrica con destino a la EDAR, con el fin de reducir el coste actualmente existente, que es elevado. El Alcalde informa que el proyecto previsto inicialmente para instalar paneles solares fotovoltaicos en la pérgola del autobús de la Plaza Bea-Murgia *y el estudio se ha realizado este año y la actuación se hará el próximo 2021*, y dentro de las posibles opciones, ver si es posible con esa instalación generar energía y conectarla a la red para el consumo de la EDAR, o quizás sea necesario ejecutar la instalación en una campa anexa a la misma.

Seguidamente pregunta si se sabe algo del nuevo centro escolar, contestándole el Alcalde que no.

La Concejala Sra. Ircio pregunta sobre el vallado de madera ejecutado de la finca situada en la C/Domingo de Sautu junto a la C/Palatu que llama bastante la atención y le extraña no se le hubiera paralizado; el Alcalde informa que lo está mirando el arquitecto técnico para informar sobre ello.

La Concejala Sra. López pregunta sobre lo ocurrido en las piscinas, informando el Alcalde que algunos jóvenes arrancaron las vallas de la terraza y tiraron sillas, ceniceros y botellas a la piscina, el último día de apertura del bar.

A continuación la Sra. López solicita que se limpie la zona de contenedores de Larrabizkal, y plantea la posibilidad de modificar la ubicación

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • *Web:* www.zuia.eus

planteatu du, kontuan hartuta, gainera, edukiontzien egungo egoera dela-eta, galtzadara sartu behar dela hondakinak botatzeko; alkateak esan du ezin dela proposamena egin, bilketa kamioiak atzera eginez irten beharko lukeelako eta urbanizazioaren barruan ez dutelako nahi horiek instalatzea, eta, beraz, kokapen aldaketa zaila dela.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 20:45ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaria,

de los mismos al fondo, teniendo en cuenta además que la actual situación de los mismos obliga a acceder al a calzada para depositar los residuos; el Alcalde dice que no es factible la propuesta porque el camión de recogida tendría que salir para atrás  y dentro de la urbanización no quieren  que se instalen, con lo cual el cambio de ubicación es difícil.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la sesión, siendo las 20:45 horas de todo lo que como Secretaria certifico.

La Secretaria,